

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak Lanbide Heziketa eta unibertsitateko graduen arteko kredituen errekonozimenduak eguneratu ditu

Taula berriak Hezkuntza Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatearekin elkarlanean zehaztu dira

Astelehena, 2018.eko azaroak 12

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatearekin batera Lanbide Heziketako eta unibertsitateko gradu berrien kredituen errekonozimendua eguneratu du. Era honetara lanbide heziketako eta unibertsitateko tituluak ezartzen doazen heinean korrespondentzia berriak zehatzuko dira.



Carmen Jarén, Roberto Perez, Pablo Sánchez-Ostiz eta Esther Monterrubio sinaduran.

Eguneratzea gaur sinatu dute Roberto Perez, Hezkuntzako zuzendari orokorrak, Carmen Jarén Ceballos, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza errektoreordeak eta Pablo Sánchez-Ostiz, Nafarroako Unibertsitateko antolaketa akademikoko errektoreordeak.

Baliozkotzeen eguneraketa eta moldaketan (aurrekoa 2013koa zen) Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako irakasleek parte hartu dute, bederatzi lan taldeetan banaturik 43 pertsona aritu dira modulu profesional guztiak landuz. Zehazki, Lanbide Heziketako Goi Mailako 65 titulu, Nafarroako Unibertsitateko 20 eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko 22 aztertu dira batazbesteko 25 ECTS (Europako kredituko) errekonozimenduaren urkilarekin, gehienez 48 kreditu errekonozituz; aparteko titulazio batek 64.5 kreditu ditu.